

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info


Asteartea, 2012ko maiatzaren 22a. IX. urtea. 2.352. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Zortzi urtetako lanak eman du fruitua, kalean da 'Sua' filma

Ibarrako Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteak pelikularen aurre estreinaldia egingo du ekainaren 2an, Arabako Ozaeta herrian **02**



Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteak, filmaren aurkezpena. HITZA



Leitzan ere Goazen plazara! ekimenarekin bat egin zuten hainbat herritarrek, herriko plazan. HITZA

## Herritarrek plazak bete dituzte presoan alde

Herrirak deituta 'Goazen plazara!' ekimenarekin bat egin zuten larunbatean Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan; «arnasaldia izan da aurrera begira egin beharreko lanerako» esan dute antolatzaileek **05**

## Ibarrako arau berriztatzaileak definitzeko prozesua martxan da

Euskal Herria kaleko 37. zenbakian udalak jarri duen bulegoan egin ditzakete ekarpenak ibartarrek; jarduera ugari aurreikusi dituzte **02**

## Garmendia eta Arzelus, munduko sega txapeldunak 60 urtetik gorakoen mailan

Anoetarrak eta tolosarrak taldeka lortu dute txapela, Alemaniako Salbitz herrian egindako lehiaketan **07**

## Tolosako Topic zentroa, urteko lau museo onenen artean

Silletto saria eman diote «museoak txotxongiloen magiaren bitartez, herri txiki bat mundura zabaltzea lortu» duelako **03**

**GAUR, maiatzak 22, asteartea - 19:00etan IRURAKO plazako ikastolan Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean liburuaren aurkezpen-hitzaldia**

**Hizlariak:**  
**Jon Mintegiaga eta Joxemi Saizar**  
(liburuaren egileak)

Liburua erosteko aukera egongo da bertan:  
**Prezioa: 18 € — Harpidedun txartelarekin: 15 €**

**Eskaintza:**  
'Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean' +  
'1936ko Gerrako Oroitzapenak' = 25 euro. **Harpidedunek 20 euro**



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**

**IES MONTE ALBERTIA BHI**

### IRUDI PERTSONALAREN HEZIKETA-ZIKLOAK

**IRUDI-MAILA**

**00-MAILA**

**01-MAILA**

**02-MAILA**

**03-MAILA**

**04-MAILA**

**05-MAILA**

**06-MAILA**

**07-MAILA**

**08-MAILA**

**09-MAILA**

**10-MAILA**

**11-MAILA**

**12-MAILA**

# «Herritik sortutako» 'Sua' filma ekainaren 2an estreinatuko dute

Arabako Ozaeta herrian egingo dute, «jai giroan»; ekainaren 29an Tolosako Leidorren aurkeztuko dute

Iñigo Terradillos Ibarra

Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkartearen bigarren proiektua jendaurrean aurkezteko prest dago. «Herritik sortu eta herritik egindako» *Sua* filmaren aurre estreinaldia ekainaren 2an egingo dute Arabako Ozaeta herrian, eta ondoren iritsiko da eskualdera. Hain zuzen ere, ekainaren 29an izango da ikusgai, Tolosako Leidorren.

Duela ia zortzi urte hasitako proiektua ari da, beraz, amaierara gerturatzen. *Eneko Aritz*a film laburra izan zen Ibarako kultur elkartearen lehendabiziko lana, eta hura bukatu ostean, proiektu handiago batekin ausartu ziren, hau da, laburretik luzerako pausoa ematea erabaki zuten.

**Grabaketan unea, «politena» XVII. mende hasieran** Pierre de Lancre inksidoreak Lapurdin egindako tortura eta eraikitetan dago oinarrituta filma. Lehendabiziko urtea Euskal Herriko historiaren pasarte horren inguruko informazioa biltzen eta gidoia prestatzen eman zuten, eta ondoren hasi ziren grabaketekin. «Grabaketak egiten igaro ditugun 4-5 urteak oso politak izan



'Sua' filmaren grabaketako une bat. HITZA

dira, Euskal Herriko herri askotatik igaro garelako eta jende ugari ezagutzeko aukera izan dugulako», dio Unai Igartua Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteak.

Ia Euskal Herri osoa zeharkatu dute, herriz herri grabaketak egiten. «Joan garen herri bakoitzean bertako jendea gonbidatu dugu grabaketetan parte hartzera, eta erantzun oso ona izan dugu», azaldu du Igartuak. 700 lagun baino gehiagok hartu dute parte dena filmean, guztiak boluntarioak. «Diru laguntzarik gabe, eta baliabide gutxiarekin, era amateurrean egin dugu dena, beraz, ezinbestekoa izan da jendearen babesa, eta eskertu beharra daukagun».

Azken hiru urteak estudioko lanean edo muntaketan igaro dituzte, eta hori izan da «gogorre-na» ibartarrentzat: «Ordu asko genituen grabaturik, eta hori guztia ordu eta erdian geratzeko asko zegoen mozteko; hau izan da proiektuaren alderdirik astunena».

## Bizipen ugari

Zortzi urtek askorako ematen dute, eta Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak kideek hamaika bizipen edo pasadizo gordetzen dituzte: «Asteburu batean, Bizkaiako hondartza batean grabatu behar genuen, eta gure bi aktorek huts egin zuten, han zeuden bi gizonen esan genien ea animatzen ziren, eta baietz esan zuten. Egia

esan, oso ondo egin zuten». Halaber, gertaera alaiak eta ez hain alaiak izan dituzte: «Gogoan dugu, nola ez, 2007an filmeko bi kide atxilotu zituzteneko unea; gerora, absolbitu egin zituzten, baina grabazioko irudi batzuk poliziaren eskuetan jarraitzen dute oraindik», dio Igartuak.

## Aurre estreinaldia festa

Grabaketak egin dituzten herri askotan festa eginez amaitu dute. Eta, asmo hori dute ekainaren 2an Arabako Ozaeta herriko Otaza auzoan egingo duten aurre estreinaldirako: «Herri askotan festa politak egin ditugu grabazioen aitzakian, kontzertuekin eta DJ Bull-en laguntzarekin, eta Ozaetan ere asmo bera dugu hango la-

## ↓ Datuak

### AURRE ESTREINALDI JAIA

■ **Ozaeta.** Arabako Ozaeta herriko Otaza auzoan. 16:00etan, harrera eta sorpresak izango dira; 20:00etan afaria; 22:00etan, aurre estreinaldia; 00:00etan, kontzertuak eta DJ Bull.

### ESTREINALDIA

■ **Tolosa.** Ekainaren 29an, Leidor aretoan, 20:00etan. Ekainaren 11tik 29ra filmaren grabaketako irudien erakusketak izango da kultur etxean ikusgai.

gunekin batera». Bada, *akelarre* honetan, filma ikusteaz gain, «sorpresa ugari» izango dira, afaria eta kontzertuekin batera.

Ozaetako festa igarota hasiko dira herriz herri pelikula aurkeztean. Ekainean zehar grabaketako irudiak erakutsiko dituzte Tolosako kultur etxean, eta hilabete amaieran, Leidorren emango dute. Uztailean Algortara eta Segurara eramango dute. «Izaten dugun eskaeraren arabera joango gara batera edo bestera, bai kultur etxeetan, gaztetxeetan edo zinematan eskaintzera. Hori bai, batez ere, grabatzen aritu garen herrietara joan beharra daukagu, nolabait jaso dugun babesa eskeretzeko».

Ekimenaren informazio zabalagoa nahi duenak euren webgunean ([www.sua-filma.com](http://www.sua-filma.com)) edo facebooken (sua filma) aurkitu ahalko du, eta Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteakoen harremanetan jarri nahi duenak, berriaz, [suafilma@gmail.com](mailto:suafilma@gmail.com) helbidera idatzi dezake.

# Martxan da plana zehazteko parte hartze prozesua

Euskal Herria kaleko 37. zenbakian zabalik da herritarren ekarpenak bilduko dituen bulegoa

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako hiri antolaketa orokorra idazteko prozesuari eman diote hasiera. Herritarren parte hartzearen bitartez egin asmo dute, eta hain zuzen ere, iragan ostiralean azaldu zien Ibarrako Udalak ibartarrei parte hartze hori nola gauzatzeko den.

Atzotik irekita dagoen Euskal Herria kaleko 37. zenbakian (Artsuaga bizikleta denda zegoen lekua) kokaturiko bulegoa izango da prozesuko lehen zati honetako gune nagusia. Bertan Hiri kolektiboko arkitektoak egongo dira.

Koldo Telleria arkitektoak azaldu duenez, «batetik, lehengo eta gaur egungo Ibarra aztertuko dugu, eta bestetik, herritarrei etorkizuneko nola eraiki nahi duten hausnarketa egiteko eskatuko diegu».

Bulegoa pixkana osatuz joango dira, «herritarrek elikatzen duten heinean». Lehendabizi, Ibarrak hirigintzaren ikuspegitik izan duen bilakaera erakutsiko dute. «Informazio mota guztia baliagarria izango da horretarako, eta bai norbanakoek bai eta elkarteek ere euren txokoa izango dute», azaldu du Telleriak.

Herritarren parte hartzea bultzatzeko hainbat jarduerak bultzatuko dituzte. «Gazteekin, esaterako, Ibarrako maketa osatu nahi dugu, eta jubilatuekin, argazki zaharren bilketa sustatu asmo dugu», dio arkitektoak. Era berean, panelak eta planoak egongo



Iragan ostiralean egin zuten plan orokorraren prozesuaren aurkezpena. IT

dira bulegoan, eta nahi duenak bere iritzia emateko aukera izango du.

Hala, jubilatuta dagoen jendea, eta bereziki emakumeek egin diete deialdia, «bulegora joan eta argazkiekin-eta laguntzeko». La-

guntza, herritar orori ere eskatu diete, larunbat honetan Izaskunera igotzeko. «Herriko landa ingurunea ere aztertu nahi dugu, eta asteburuan Izaskungo jaiak direla baliatuz, ibartarrekin batera igotzea litzateke gure nahia,

bide batez, auzoaren inguruan zertxobait gehiago jakiteko, beraz, herritarrek animatzen dituzte, gurekin batera igotzera».

Euskal Herria kaleko bulegoan sartzea nahikoa du era batera edo bestera lagundu nahi duenak. Astelehenean 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik bulegoa.

## «Ezohiko» prozesua

Arkitektoak dioenez, normalean udal teknikariak eta politikariak dira prozesuaren zati hau egikaritzen dutenak, beraz, Ibarrako kasua «berezi samarra» da. «Plan orokorra herritarren ikuspegitik osatzea da gure asmoa, antropologia, ikerkuntza eta parte hartzearen bitartez; orain herritarrekin landuko duguna, gero plana garatzen joateko oinarria izango da».

**Irudia** ◊

## MENDIKUTE ETA AMAIURKO GAZTELUAK EZAGUTUZ

Hilabete hasieran hasi ziren, Tolosako Lizardi kultur elkarteak antolatutako Nafar Estatu Gogoan egitasmoko jarduerak. Osteguneroko hitzaldiez gain, beste hainbat irteera eta txango ere antolatu dituzte, eta egitaraua amaierara iristen ari dela, pasaden asteburuan bi mendi irteera egin zituzten. Larunbatean, 10:00etan Mendikuteko gaztelua aitzakia hartuta, Gipuzkoako nahiz Nafarroako hainbat gazteluri buruzko hitzaldia eskaini zuen Juantxo Agirre Mauleonek, Urkizu auzoko Alur txiki elkarteak. An-

txon Bandresen omenaldia ere egin zuten, eta hura gogora ekartzeko panela jarri dute Urkizuko elkarteak; handik, Mendikutea ibilaldia egin zuten. Igandean, berriz, egun osorako txangoa antolatu zuten. Goizean, kafearekin batera, Juantxo Agirre Mauleon arkeologoak proiektzioa eskaini zuen Amaiurko Gaztelua elkarteak, jarraian bisitaldiarekin jarraitzeko. Ibilaldia amaitu eta gero, talo dastatzea izan zuten joan ziren 30 lagunek, eta azkenik, bazkariarekin borobildu zuten eguna. HITZA

## Aldarrikapena eta festa uztartuko ditu gaur Bilduk, Tolosan

Aldaketa politikoan aldeko indarrek metatzen jarraitzen dutela nabarmenduko dute

**I. Urkizu** Tolosa

«Aldarrikapena eta festa uztartuz», Tolosako Bilduren Ametsak Pilatuz ekitaldi politikoa izango da gaur, 20:00etan; Triangulua plazan edo Zerkausian egingo dute, eguraldiaren arabera.

Iazko maiatzaren 22an, udal eta foru hauteskundeetan Bildu koalizioak jasotako babes gogora ekarriko du gaur: «Bazterketara kondenatu nahi gintuztenen aurrean, milaka ahots, milaka borondate, milaka amets lerrotatu ziren Bildu erakundeetara gortzeko». Bide honetan, «aldaketarako apustua» egin zutela nabarmendu du Tolosako Bilduk: «Bakea eraikitzeko erabaki sendoa hartu genuen, eta herri, auzo eta hirietan demokrazia eta parte hartze guneak eraiki nahi izan genituen».

Duela urte betekoa gogora ekartzearekin batera, ordea, aldarrikapenari ere tartea egin nahi izan diote Bilduko kideek. «Bagenekien bidea ez zela erraza izango», diote. «Tamalez, gaur ere, orain urte bete bezala, belaukaturik mantendu nahi gaituzten horien aldetik, ezarritako traba politikoa, ekonomikoa eta judizialak etengabeak dira».

Honen aurrean, «eragozpenak eragozpen», gertatzeko edo atzera egiteko asmorik ez dutela nabarmendu nahi izan dute, beren «erronka berriak» argi utziz: «Adostasun politikoak zabaldu ditugu. Euskal Herrian aldaketa politiko eta sozialaren aldeko aukera politikoa, indarrak metatzen jarraitzen du. Bildu hasiera zen,

**Ibai Iriarte Tolosako alkateaz gain, beste bi hizlari izango dira ekitaldian**

Amaiurrekin hazi egin zen, eta orain akordio berriak zabaltzeko determinazioa hartu dugu». Horrela beraz, «Gasteizko Legebiltzarreko datozen hauteskundeetan ere, irabazteko asmoz» lehiatuko direla azpimarratu dute.

**Aldarrikatzeko festa**

Gaur, 20:00etan hasiko den ekitaldi politikoan, Ibai Iriarte Tolosako alkateaz gain, Aitziber Sarasola nafar parlamentaria eta Onintza Lasa ere ariko dira hizlari moduan.

Horrekin batera, olerki erreztaldia dantzaldia eta musika ere izango direla azaldu dute antolatzaileek: «Lehenengo urtemuga honetan, orduko konpromisoa biziberritu nahi duten herritar guztiei, aldarrikapena eta festa uztartuz egingo dugun ekitaldian parte hartzeko deia luzatu nahi diegu».

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Europako urteko lau museo onenen artean da Topic zentroa

46 hautagaien artean, Silletto saria jasotzeko aukeratu izan da asteburuan, Tolosako museoa

**I. Urkizu** Tolosa

Topic zentroak Silletto saria jaso berri du, European Museum Forum elkarteak urtero antolatzen duen Europako urteko museo onenaren sariketan; Europako lau museo onenen artean jarri du, sariak, Topic.

Guztira, 46 museo izan dira hautagai, pasa den asteburuan Penagfielen (Portugal) ospatu duten mintegian, eta lau izan dira banatutako sariak: Europako aurtengo museo onenaren saria, Council of Europe saria, Kenneth Hudson saria eta Topic zentroak jaso duen Silletto saria. Sari honak, azken bi urteotan, museoak bere inguruko komunitatearekin harreman sakon eta emankorra izan izan duen museoaren lana hartzen du aintzat.

Epaimahaikideen ustez, «museoak, txotxongiloen magiaren bitartez, herri txiki bat mundura

zabaltzea lortu du», eta «dokumentazioa, ikerketa, erakusketak eta hezkuntza elkartuz, eta mundu guztiarekin lan eginez, Topic haurrengana, helduengana eta publiko bereziarengana ere zuzendu da».

Saridun suertatu diren Europako gainontzeko museoak, Cordobako (Espainia) Madinat al-Zahra Museoa -Europako Urteko Museoa, sari nagusia-, Koloniako (Alemania) Rautenstrauch Joest Museoa -Europako Kontseiluko Saria- eta Dublingo (Irlanda) Glasnevin Museoa -Kenneth Hudson Saria- izan dira.

## Hobetu egin da Amasa-Villabonako uraren kalitatea

**I. Urkizu** Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak jakinarazi duenez, 2011. urtean uraren saneamendu sarea hobetzeko egindako lanek beren fruitua eman dute, eta bertan uraren kalitatea hobetu egin da.

Sarearen errendimendua hobetzeko asmoz, jarduera ugari egin zituzten, batez ere ihes-bilaketen eta konponketen inguruan. Uraren erakundeak, honen harira, herritarren artean galdeketa egin berri du, eta bizilagunak «gustura» azaldu dira aldaketarekin; uraren zaporea eta kolorea, nahiz presioa nabarmendu dituzte gehienek.

## → Laburrak

### Atzeritartasun legeari buruzko informazio saioa

**GIZARTEA** › Atzeritartasun legeari buruzko informazio saioa eskainiko dute, gaur, Tolosako kultur etxean. 18:00etan hasi, eta 20:00ak bitarte iraungo du Tolosaldea Garatzenek antolatutako saioak, eta abokatua batek, atzeritartasun legearen inguruko galderak erantzungo ditu.

### Pentekosteko gaubeila izango da larunbatean

**ERLUJIOA** › Larunbatean, hilak 26, Pentekosteko gaubeila berezia izango da Tolosa-Ibarra Pastoral Barrutiko eliztar guztientzat, 20:30ean, Tolosako Santa Maria elizan.

### Kontseiluak antolatutako mintegia, gaur

**EUSKARA** › Kontseiluak antolatuta, Tolosako kultur etxean Tolosaldeko eta Goierriko euskaltzaleak elkartuko dituen mintegia egingo dute, gaur, 18:30ean. Antolatzaileek azaldu dutenez, Tolosaldeko eta Goierriko euskalgintzari bereziki eskainitako mintegia izango da, baina interesa azaltzen duen edonorentzat ere, ateak irekita egongo dira.

### Ibilaldira joateko autobuseko izen-ematea

**EUSKARA** › Datorren ekainaren 3an, Trapagaranen (Bizkaia) Ibilaldia jai ospatuko dute. Galtzaundi euskara taldeak autobusa antolatuko du, eta izena eman daiteke jada, 12 euroren truke; bazkideek 10 euro ordainduko dute.

**Tolosaldea**



**MUSEOEN EGUNAK ETA GAU ZURIAK, HARRERA «EZIN HOBEA»**

Museoen Nazioarteko Eguna zela-eta hainbat ekitaldi antolatu zituzten aste honetan. Horiekin batera lehenaldia da Tolosaldea Gau Zuria antolatu zela eta jendearen harrera «ezin hobea» izan zen, Tolosaldea Garatz-

netik azaldu zuten. Gorroategi museo eta Topic zentroko museo jendea gaitzekia egon ziren, eta Tolosaldea Tour-ek antolatutako gaueko bisita gidatua 60 pertsonatik gora joan ziren. Horrez gain, Kultur Anizta-

sunaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten ostiralean, hainbat kulturetako musika eta dantza emanaldi egin ez Euskal Herria plazan. Bestalde, Ibarra eta Villabonan merkataritza eguna egin zuten larunbatean. **»**

**Tolosa**



**MATERIAL BILKETA**

Kirikio aisialdi taldekoak «oso gustura» azaldu dila Mendebaldeko Saharara bidaltzeko asmoz egindako material bilketarekin. 250 kamisetak bildu zituzten eta hiru kaxa eskola materialarekin. **»**

**Irura**



**IKASTOLA EGUNA**

Irurako kultur astearen barruan larunbatean ikastola Eguna ospatu zuten (rudian). *Gaur, Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leizaldelan* liburuen aurkezpena egingo dute, 19:00etan, plazako ikastolan. **»**

**Zizurkil**



**KANTU GIROAN**

Maiatza Saltsan egitasmoaren barruan, Kantu Eguna izan zuten larunbatean Zizurkil (rudian), herriko plazan abestuz eta ondoren bazkaria egin ez. Bestalde, XIV. Biatzola proba bertan behera geratu zen. **»**

**Asteasu**



**DANTZARI TXIKIEN SAIOA**

Asteasu, Larraul, Villabona, Anoeta eta Tolosako dantza taldekoek parte hartu zuten Asteasuko Dantzari Txiki Egunean. Kalejira ez zuten egin eguraldi txarragatik eta saioa frontoan egin zuten. **»**

**Tolosa**



**EGURALDIARI AURRE EGINEZ TXAPINETAN**

Tolosako Txapin Festako antolatzaileak «gustura» azaldu dira larunbatean egindako festarekin. Eguraldi txarra eginagatik ere, hamabost gazte inguruk Ori ibaian baltsa jaitziera eginera auzatu ziren (rudian). Baskari ondoko jolasetan giro ona nagusitzen. **»**

**Berrobi**



**AURRERA DOA BERROBIKO KULTUR ASTEA**

Asteburuko ekitaldien ondoren, tartean irudiko Udaberriko Azoka, Berrobioko Kultur Astearen beste bi ekitaldi izango dira gaur. Alde batek, 17:00etan, gazteen arteko pilota partidak egingo dituzte; 19:00etan, Gipuzkoako Zero Zabor taldearen hitzaldia, Etxolan. **»**

**HITZAK** harpideduntzat **bi sarrera** pare ditu

**Alur**ren ikuskizun berria

Maiatzak 25 • Ostirala • 20:30ean • Tolosako Leidorren

Zozketan parte hartzen osteguneko 14:30ak baino lehen dute. **043 65 96 95** telefono zozkaila.



Ezkeretik eskuinera eta goetik behera hasita: Alegia, Altzo, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Ibarra, Ikaztegieta, Leaburu-Txarama, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil. **»**

**Ehunka pertsonak egin dute bat 'Goazen Plazara!' ekimenarekin**

Herrira mugimendutik eskerrak eman dituzte parte hartu dutenei eta datorren ostiralerako deia zabaldu dute

nasabli handia izan da urte berri berrira egin behar den lanarekin, diote Herritarrak. «Mugimendu indartsua osatzen ari da. Oraindik hobe jusean zuten iritziak garrantzi handiagokoak dira. Hiritarrak aktibatu eta mobilizatzeko «ezinbestekoak izango da

bi gobernuak mugitu ahal izateko», esan du mugimendutik eta horretarako aukera «paregabea» ostiral honetan dagoela gaineratu du. «Hilero azken ostirala izanik, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde gaudenok zita bat dugu gure herritan».

**I. Garcia Landa**

Tolosaldean eta Leizaldelan ehunka pertsonak erromen dute Herrira mugimendutik bultzatutako **Goazen Plazara!** ekimenari. Hainbat herritan ekitaldiak egin dituzte, tartean Olatuaren onak, eta horietan 1.300 pertsona inguru ekartu dira.

Herrira mugimendutik eskerrak eman dituzte ekimenaren parte hartu zuten guztiei: «Zorionak Herrira Bilguneak egindako lanagatik, zuzen idia eta dinamizak larunbatean egun ederri ahalbidetu zuten». **Goazen Plazara!** «ar-

**Osasuna sustatzeko jardunaldiak**

Informazioa: **043 65 96 95**

Adreburua eta Ibarra: **043 65 96 95**

**Informazio Saioa: maiatzaren 26an, 11:00etan**

**ingeniaritza**

**Osasuna sustatzeko jardunaldiak**

**Osasuna sustatzeko jardunaldiak**

**Osasuna sustatzeko jardunaldiak**

**Kirolak****↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

**LEHEN MAILAKO BANAKAKO TXAPELKETA**  
**Olaizola I-Idoate** 18-22  
**Bengoetxea VI-Gonzalez** 22-7

**Hurrengo partidak:**

**Finalerdiak**  
**Olaizola II edo Retegi Bi-Bengoetxea VI**

**BIGARREN MAILAKO BANAKAKO TXAPELKETA**  
**Hurrengo partida:**

**Finalerdiak**  
**Jaunarena-Zabaleta**

**HERRI ARTEKO TXAPELKETA**

**Alegia-Urretxu** 1-2  
**Amezketta-Arrasate** 1-2

**Hurrengo kanporaketa**

**Bidegoian-Urretxu**

**ARETO FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA 30. jardunaldia**  
**Ibarra-Santurtzi** 3-0  
**Egintza T. Lakunza-Buruntza** 4-3

**Sailekapena**

**1. Ibarra** 75p  
**2. Sestao** 74p  
**3. Aurrera Vitoria** 62p  
**5. Egintza T. Lakunza** 43p

**EUSKAL LIGA**

**30. jardunaldia**  
**Mamarigako-Tolargi** 3-4  
**Goierri-Eskolapioak** 5-0

**Sailekapena**

**1. Tolargi** 67p  
**2. Goierri** 64p  
**3. Tolosala Hirukide** 62p  
**4. Mamarigako** 58p  
**5. Uxoia** 47p  
**6. Isu Leioak** 47p  
**7. Eskolapioak** 39p

**FUTBOLA**

**ERREGIONAL OHOREZKOA 33. jardunaldia**  
**Tolosa CF-Trintxerpe-** 3-2

**Sailekapena**

**1. Anaitasuna** 68p  
**2. Tolosa** 64p  
**3. Pasaia** 62p

**HURRENGO JARDUNALDIA**

**Hondarribia-Tolosa**

# Oinatz Bengoetxeak ordu erdian gainditu du Sebastian Gonzalez

Herriartekoan Alegia eta Amezketta lehiatik at gelditu dira; Bidegoian Urretxuren aurka lehiatuko da

**Asier Imaz**

Oinatz Bengoetxeak 22-7 irabazi zion Sebastian Gonzalez iragan ostiralean, Hendaian jokatu zen buruz-buruko pilota txapelketako partida ahulean. Leitzarrak 36 minutu behar izan zituen berriro aldageletara itzultzeko, finalerdietako txartela poltsikoan zuela. Gonzalez, ezinean aritu zen partida guztian zehar, eta nahiko lan izan zuen satea txukun itzultzen. Helburu hori ez zuenez lortu, Bengoetxea VI.ak zortzi tanto lortu zituen hasierako pilota kolpearekin, eta bost gehiago ondorengo errematearekin.

Buruz-buruko pilota txapelketako lehen partida zuen leitzarrak. Aurkariaren maila kontuan



Oinatz Bengoetxea finalerdietarako sailkatu da. HITZA

hartuta, urduri egoteko moduko lehia izango zela zirudien, baina Gonzalezen jokorik ahulena lagun, Oinatz Bengoetxeak partida erraz bideratu zuen: 0-13; 1-18; 5-21 eta 7-22. Hendaian lortutako garaipenari esker, Bengoetxea VI.a finalerdietan dago. Bere aurkaria Aimar Olaizola eta Julen

Retegiren arteko norgehiagokatik irtengo da. Partida hau atzokatzeko bazen ere, Olaizola II.ak atzeratzea eskatu zuenez, oraindik zintzilik dago.

Goizuetarra finalerdietan egongo den bezala, Leitzan bizi den bere anai zaharra ez da egongo. Asier Olaizolak Idoateren aur-

ka jokatu zuen iragan larunbatean Iruñeko Labrit pilotalekuan, eta 22-18ko emaitzarekin agur esan zion buruz-buruko txapelketari. Olaizola I.ak eta Idoatek partida aldrebesa jokatu zuten, eta asko sufritu ondoren, txantrearra iritsi zen 22 tanto egitera. Idoatek sakez sei tanto egin zituen, eta Olaizola I.ak lau.

Bigarren mailako buruz-buruko txapelketari dagokionez, finalerdietan eskualdeko pilotari bakarra egongo da: Jon Jaunarena. Leitzarrak Zabaletaren aurka jokatuko du partida, asteburu honetan.

**Herriarteko txapelketa**

Alegia eta Amezketak larunbatean jokatu zituzten herriarteko txapelketaren itzulerako lehiak. Joaneko emaitza berdinak lortu ondoren, 1-2koa, txapelketari agur esan zioten Urretxu eta Arrasateren aurka. Bidegoian asteburu honetan sartuko da herriarteko txapelketan, hain zuzen ere, Urretxuren aurka.

**Irudia Tolosa**

## HIRUKIDE, TXAPELDUN

Hirukideko atletismo taldeko neska alebinak Gipuzkoako Taldeko Txapelketa irabazi zuten igandean. Txapelketa Ordizian jokatu zen, eta sailekapen orokorra irabazteaz gain, erreleboetan ere urrezko domina lortu zuten tolosarrek. Hirukideko taldea ondorengo neskek osatzen dute: Naroa Jauregi hesietan; Ainhoa Gibelalde 60 metrotan; Maddi Sanchez 1000 metrotan; Izaro Perurena pisuan; Miren Alargunsoro luzeran; eta Maria Lasa altueran. HITZA

**Irudia Tolosa**

## SAMANIEGO ORIXE NAGUSI

Samaniego Orixeko senior mutilek play-offetako finalerdietan IDK taldea kanporatu zuten penaltietan. Finala iragan larunbatean jokatu zuten, Laskorain taldearen aurka. Igoera postua ziur zuten bi taldeek, hala eta guztiz ere, lehia gogorra izan zen. Azkenean, Samaniego Orixekoak gailendu ziren, 2-leko emaitza estuarekin eta beraz, hirugarren mailako txapelketa bilakatu ziren. Denboraldiari amaiera modu paregabean eman diote, beraz. HITZA

**Hilberriak eta urteurenak**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



### Irurako Udala

IRACARMA

Irurako Udalak hainbat begirale kontratatuko ditu. Beharrezkoa izango da 18 urte izatea, euskaraz (EGA) jakitea, Irurakoa izatea eta aisialdiko begirale titulua izatea. Kontuan hartuko dira hezkuntzako ikasketak eta esperientzia. Interesatuak ere curriculumarekin udeletzeko bulego orokorretara ekarri beharko dute maiatzaren 28tik ekainaren 8ra bitartean goizeko 8:00etatik 15:00etara.



### ANE OTXOTEKO ETXENAGUSIA

Zure laguntasuna maikotan da busti atzo hain gertu eta gaur horren urrutu bertsoak in dittugu zutaz bereziki gure bihotz barruan egongo za beti

Elizalde Herri Eskolako ikasleek, irakasleek, familieek eta beste langileek

Oirtzunen, 2012ko maiatzaren 22an

## Irudia o Tolosa



## EURIPEAN

Tolosaldeko mendizale talde batek, larunbatean, mendi irteera egin zuen. Eguraldi euritsua izan zuten, eta lokatz asko egon arren, 60 lagun animatu ziren. Beorburu, Gorriti eta Tolosa arteko bidea egitera. Atzetik, Beorburu eta Aldatz ibilbidea egin zuten, 40 lagunek. HITZA

## Peio Argaiak irabazi du Gipuzkoako Lasto Jasotze Txapelketa

18 altxaldi egin zituen zizurkildarrak; Lander Oterminek 16 altxaldi eta Mattin de la Sotillak 6

### E. Maiz

Gipuzkoako Lasto Jasotze Txapelketa Peio Argaiak zizurkildarrak irabazi zuen, Beasainen. Mattin de la Sotilla tolosarrak eta Lander Otermin ibartarrak ere parte hartu zuten.

Peio Argaiak, 18 altxaldi egin zituen 2 minutu eta 3 segundoko denboran. Atzetik, Gotzon Arrieta, 5 segundo gehiago behar izan zituen 18 altxaldi emateko. Andoni Agirreurretak, 16 Altxaldi eman zituen 2 minututan, eta segundo bat gehiago behar izan zuen Lander Oterminek. Mattin de la Sotillak 6 altxaldi egin zituen.

### ↓ Sailkapena

#### Gipuzkoako Txapelketa

1. Peio Argaiak	18 altxaldi
2. Gotzon Arrieta	18 altxaldi
3. Andoni Agirreurreta	16 altxaldi
4. Lander Otermin	16 altxaldi
5. Mattin de la Sotilla	6 altxaldi

## Garmendia eta Arzelus munduko txapeldunak



Segalari veteranoak Alemaniako podiumean. HITZA

Koldo Arzelusek eta Joakin Garmendiak 60 urtetik gorako taldekako sailean lortu dute garaipena

### Eneritz Maiz

Joakin Garmendia anoetarra eta Koldo Arzelus *Erreka* tolosarra, munduko sega txapelketa txapelkun geratu ziren, larunbatean. Segar txikiarekin, 60 urtetik gorako taldekako sailean lortu

zuten garaipena. Eskualdekoek, Pabi Astondoa eta Anjel Maguregi bizkaitarrak izan zituzten lagun. Lan txukuna eginda lortu zuten podiumeko lehen postura igotzea. Saio librean ez zuten lortu sailkatzea.

Asteburuan jokatu zen Munduko Segar Txapelketa, Alemaniako Salbitz herrian. Elite mailan, taldekakoan, Igor Esnaolak, JM Agirrezabalak eta Mitxelenak, berriz, hirugarren postua lortu zuten. Emakumeen taldea finalerako sailkatu bazen ere, ez zuten lortu podiumera igotzerik.

## Eneko Saralegik finalerako txartela eskuratu du

Urrezko Aizkorako kanporaketa irabazita, zuzenean da finalean; Ruben Saralegi ez da finalerdietarako sailkatu

### Eneritz Maiz

Urrezko Aizkorako Txapelketako kanporaketan, gazte mailakoan edo 19 urtez azpiko mailan, Eneko Saralegi leitzarrak aurrera jarraitzeko txartela lortu du. Lau aizkolari lehiatu ziren, eta garaipena eskuratu, leitzarra zuzenean finalera pasa da. Bigarren postuan, berriz, Larrea III.a geratu zen. Hauen atzetik, eta txapelketatik kanpora geratu zirenak Kortxero eta Etxeberria II.a izan ziren. Finala jokatzeko sailkatuta dagoen beste aizkolaria, Eneko Otaño da.

### Otañok eta Irazuk Gipuzkoako Bigarren Mailako Txapelketako finala jokatu dute

23 urtez azpiko kasuan, Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketako kanporaketa Urrotzen jokatu zen. Bertan,

Ruben Saralegi leitzarrak zuten saioa, baina kasu honetan, ez zuten lortu finalerdietara pasatzerik. Erasuren lortu zuen garaipena, eta bigarren txartela Larretxearentzat izan zen. Kanpoan geratu zen beste aizkolaria, Kañameres III.a izan zen.

### Gipuzkoako txapelketak

Asteburuan erabaki ziren Gipuzkoako Bigarren Mailako Aizkora Txapelketako finalera iritsi diren aizkolarien izenak. Lehen kanporaketa Beasainen jokatu zen, eta bertan, Jon Irazu zizurkildarra izan zen onena. Bikana erdiko eta 60 ontzako bi enbor mozteko, 8 minutu eta 40 segundo behar izan zituen. Irazurekin batera, hurrenez hurren, Zaldua eta Mugertza II.a sailkatu ziren finalerako. Lasa, Dorransoro eta Eneko Otañorekin batera, Alkizalete II.a asteasuara, txapelketatik kanpora geratu zen.

Bigarren kanporaketa Aian jokatu zen, eta kasu honetan, Unai Otaño izan zen azkarrena. 7 minutu eta 56 segundo behar izan zituen lan guztiak amaitzeko. Bere atzetik, Larrañaga eta Telletxeak bukatu zuten. Finala, Otaño, Larrañaga, Telletxea, Irazu, Zaldua eta Mugertza II.ak jokatu dute, uztailearen 26ean.

## Hilberriak eta urteurrenak



**MARTIN INTXAURRONDO OTAZO**  
1946

Agur aitona aintzatzeak, agur aita, agur Martin, azkenerrate gozatu den zure biloba denekin, zinen bezeia maite zintagun, betiko zaudete gurekin.

ETXEOAK.

TUMAIK, 2020 maiatzaren 22



**JUAN JOSE BENITO ELORZA**

Ilartzean egindako lanagatik, eta eskaririk adiskidetasunagatik, esker onak.

PAQOETA MENDIZALE ELKARTEA

PAQOETA

ZARAUZE, 2020 maiatzak 22



**ANTONIO OTEGI IZAGIRRE**  
(ANTONINA ARIZTONDORREN ALARGUNA) jauna

Sutondoan geratu da hutsune sakona baina nola hiltzeko sortzen den pertsona

gordeko dugu zure oroitzapen ona maitasunez muxu bat adio ATTONA!

Zure bilobak: Kepa eta Maddi, Iñigo eta Amaia, Idoia eta Josu, Leire.

Haren arimaren ale, otoitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezela. GAUR ASTEARTEA arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SANTA MARIA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Olarrain Berri baserria.

Oharra: Gorputz bella Tolosako FUNERARIA ORIA TANATORIOAN egongo da ASTEARTEA gozoko 11:30ak arte.

Tolosan, 2012ko maiatzaren 22an



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIK**

- **Berastegi.** Herrian kontsumo taldea egin nahi dute, eta horretarako bilera egingo dute gaur, 21:00etan, udal bulegoetan.
- **Ibarra.** Udalak atez ateko hondakin bilketaren inguruko informazio batzarrak antolatu ditu. Euskarazko saioa gaur izango da, 19:00etan, udaletxean, eta gaztelaniazkoa bihar, hilak 23, leku eta ordu berean.
- **Ikaztegieta.** Gaur 19:00etatik 21:00etara odola emateko aukera egongo da, liburutegian.
- **Tolosa.** Ibarako Alurr dantza taldeak ostiralean, hilak 25, *Izainak dirau*, 1512 eskainiko du 20:30ean, Leidor aretoan. Sarriker [www.barrabarra.eu](http://www.barrabarra.eu) webgunean eskuratu daitezke.
- **Tolosa.** Bilduren lehen urteurrena dela eta ekitaldi politikoa egingo dute gaur, 20:00etan Trianguloan.
- **Berrobi.** Kultur astean gaur, 17:00etan, gazteen pilota partidak, eta 19:00etan, Gipuzkoa Zero Zabor hitzaldia, Etxolan.
- **Irura.** Kultur astearren barruan gaur, 19:00etan, HITZAK argitaratutako *Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaaldean* liburuen aurkezpena, plaza-ko ikastolan.

**Irudia Tolosa**



**PALESTINARREN NAKBA, GOGOAN**

Tolosako Emeterio Arrese plaza Palestinari elkartasuna adierazteko gune bihurtu zuten larunbatean. Orain urte batzuk olibondoak landatu zituzten eta oroi garri bat jarri zuten, eta aurtun, mosai-ko bat jarri dute, palestinarren Nakba eguna oroitzuten duena, hau da, 1946 eta 1948 urteen ar-

tean palestinarrek pairatu zuten exodoa. Mosai-koa Samia Shanan palestinarrek eskaini dio Tolosari eta bera ere ekitaldian izan zen. Ibai Iriarte alkatea eta Jokin Azkue zinegotzia, arabiar-musulmanen komunitateko kideak eta Biladi elkarteeko kideak izan ziren ekitaldian, besteak beste. i.g.l.

**Agurak**



**Urte askoan!**  
**Eider Tobar Larrauri (Ikaztegieta).**  
Atzo 7 urte. Zorionak eta muxuak lehengusuen eta familiaren partetik.

AGURRAK  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

●●●●● agurak

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



**harpidedun izateak badu saria**

**zozketa**

**1 Arregi Jatetxea**  
**Bi lagunentzako**  
**bazkaria edo afaria**

Herriko plaza, 7 • Berastegi  
Tel.: 943-68 30 59

Telefonoz parte hartzeko  
eskaintza zenbakia: **51**



**2 Fronton Jatetxea**  
**Bi lagunentzako**  
**bazkaria edo afaria**

San Frantzisko ibiltokia, 4 • Tolosa • Tel.: 943-65 29 41

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



**3 Euskal Eskola**  
**Publikoaren XXI. jaia**  
**Bi elastiko**

[www.ehige.org/jaia2012/](http://www.ehige.org/jaia2012/)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



**4 EUREKA! zientzia museoa**  
**Bi lagunentzat bina sarrera**

Mikeletegi, 43-45  
Donostia  
Tel.: 943-01 24 78

[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

